Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko maiatzaren 13a, asteazkena — 87 — Miércoles, a 13 de mayo de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Tolosako Hiri Antolamendu Plan Orokorreko (HAPO) ondarearen udal-katalogoaren aldaketa puntualari buruzko irizpena.*

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita seiko apirilaren hogeita hamarrean, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

*Lehenengoa.* Adieraztea 2025eko irailaren 8an (sarrera zk.: 11631) J.M.E. herritarrak aurkeztutako alegazioa jada erantzunda dagoenez, une honetan ez dagoela ebatzi beharreko alegaziorik.

*Bigarrena.* Partzialki onartzea 2025eko irailaren 29an (sarrera: 12824 zk.) L.T.U. herritarrak aurkeztutako alegazioa, udaleko teknikoek egindako txostenean jasotako arrazoiengatik; erabaki honek aurretik onartutakorekin alderatuta funtsezko aldaketarik eragin gabe.

Hori horrela, Eskolapioetako loretegia 4 zenbakiko (Banco Gipuzkoano) eraikinari dagokion fitxan, jarduteko irizpidea, horrela geratuko da idatzita:

«Babestutako eraikinetan egiten den esku hartze orok, ondare baliozko elementuei ez badagozkie ere, elementu horiek eta haien tipologia, eraikuntza eta konposizio ezaugarriak errespetatu beharko ditu; eraikinaren babesa eta balioan jartzea eta eraikinaren eta haren ingurunearen arteko harremanaren berezitasuna bermatuz.

Eraikinaren ezaugarriak eta diseinua errespetatzen dituzten proposamenak izan beharko dira.

Patioetan fatxaden kanpotiko isolamendua baimenduko da, baina gainontzeko harrizko aplakatudun fatxadetan ez da aplakatua estaltzerik onartuko.

Fatxadako bao eta balkoiek jatorrizko konfigurazioa mantendu beharko dute. Arotzeriak jatorrizko materialtasuna galduta duen arren, jatorrizko konfigurazioa eta kolore bateratua mantendu beharko ditu gutxienez.

Esku hartze orok eraikina errespetatu beharko du eta Udalaren berariazko onarpena izan beharko du.»

Eta, deskribapen gehigarriaren atalean honako hau gehitu da:

«(...) Fatxadak kanpoaldetik isolatu ahal izango dira argi-patioetan, baina ez gainerako fatxadetan, harrizko plakazko estaldurarekin; izan ere, garrantzitsutzat jotzen da eraikinaren fatxadako plaka-estalduren formatu, akabera eta egitura desberdinak kontserbatzea eta mantentzea.

Baoek eta balkoiek jatorrizko itxurari eutsi beharko diote. Arotzeriek jatorrizko materiala galdu dute, baina, gutxienez, jatorrizko konfigurazioa eta kolorea mantendu beharko dituzte.

Hainbat isurkiko estalkia da, erdian argizulo handi bat du, eta mehelinaren ondoan beste bat, barruko patioak argiztatzeko. Estalkiak konfigurazio konplexua du, eta, beraz, arreta berezia jarri beharko da puntu berezietan eta paramentu desberdinekiko elkarguneetan. Gaur egun, eraikinak igogailua du.»

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Dictamen sobre la modificación puntual del catálogo municipal de patrimonio del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Tolosa.*

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día treinta de abril de dos mil veintiséis, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo. El contenido es la traducción del original en euskera y es el siguiente:

*Primero.* Declarar que, estando ya contestada la alegación presentada por el/la ciudadano/a J.M.E. con fecha 8 de septiembre de 2025 (n.º entrada 11631), no existe en este momento ninguna alegación que deba ser resuelta.

*Segundo.* Aceptar parcialmente la alegación presentada por el/la ciudadano/a L.T.U. el 29 de septiembre de 2025 (n.º de entrada 12824) por los motivos recogidos en el informe elaborado por los/las técnicos/as municipales, sin que este acuerdo suponga una modificación sustancial respecto a lo aprobado con anterioridad.

Así, en la ficha correspondiente al edificio del Eskolapioetako loratetegia n.º 4 (Banco Gipuzkoano), el criterio de actuación queda redactado como sigue:

«Cualquier intervención en la edificación protegida, aun no correspondiendo a elementos con valor patrimonial, deberá respetar dichos elementos, sus características tipológicas, constructivas y compositivas, garantizando su protección y puesta en valor y la singularidad en la relación del edificio con su entorno.

Deberán adoptarse soluciones tipológicas respetuosas con las características constructivas y de diseño de la edificación.

Se permitirá el aislamiento exterior de fachadas en patios, pero en el resto de las fachadas con aplacado de piedra no se permitirá cubrir el aplacado.

Los vanos y balcones deberán mantener la configuración original. Aunque las carpinterías hayan perdido la materialidad original, deberán, al menos, mantener la configuración original y color unificado.

Toda intervención deberá ser respetuosa con el edificio y contar con la aceptación expresa del Ayuntamiento.»

Y en el apartado de la descripción adicional se añade lo siguiente:

«(...) Se permitirá el aislamiento exterior de fachadas en patios de luces pero no en el resto de las fachadas con aplacado de piedra ya que se estima importante la conservación y mantenimiento de los diferentes formatos, acabados y texturas de los diferentes aplacados de fachada característicos del edificio.

Los vanos y balcones deberán mantener la configuración original. Las carpinterías han perdido la materialidad original, pero al menos deberán mantener la configuración y color originales.

Se trata de una cubierta a varias aguas, con un amplio lucernario en su punto central y otro junto al medianil para la iluminación de los patios interiores. La cubierta presenta una configuración compleja por lo que se deberá mantener especial cuidado en los puntos singulares y encuentros con diferentes paramentos. Actualmente el edificio cuenta con ascensor.»

EK\CV GAO-I-2026-03159

*Hirugarrena.* Ez onartzea hurrengo alegazio hauek, udaleko teknikariek egindako txostenetan jasotako arrazoiengatik:

— 2025eko irailaren 23an (sarrera: 12488 zk.) J.M.E. herritarrak aurkeztutakoa.

— 2025eko irailaren 26an (sarrera: 12736 zk.) E.L.G. herritarrak aurkeztutakoa.

— 2025eko irailaren 29an (sarrera: 12746 zk.) E.L.G. herritarrak aurkeztutakoa.

— 2025eko irailaren 29an (sarrera: 12747 zk.) E.L.G. herritarrak aurkeztutakoa.

*Laugarrena.* Babestea Santa Klara 3 zenbakiko eraikina eta, ondorioz, gehitzea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko ondarearen udal-katalogoan hiriguneko hainbat txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektiboak zein eraikin instituzionalak barneratzeko abiatutako katalogoaren aldaketa puntualean; dagokion fitxa gehituz (39. fitxa zenbakia).

*Bosgarrena.* Aurreko puntuan erabakitakoa funtsezko aldaketa dela iritzita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean oinarriturik eta, soilik aurreko puntuari dagokionez, hots, Santa Klara 3 zenbakiko eraikina babestu eta katalogoan sartzeko erabakia, jendaurreko informaziorako eta interesdunei entzuteko aldi bat irekitzea, hogeita hamar egunekoa, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea. Eta, era berean, Tolosako Udalaren web gunean eskura jartzea Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP enpresak Tolosako Udalean 2026ko apirilaren 14an (2026/5262 sarrera zk.) aurkeztutako ondare-azterketa.

*Seigarrena.* Xedatzea adierazitako entzunaldi zein jendaurreko berria, eta alegaziorik egon ezean, Katalogoaren handitzea behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

*Zazpigarrena.* Erabaki hau jakinaraztea jendaurrean egon bitartean alegazioak aurkeztu dituzten interesdunei, udal teknikariek egindako txostena gehituz.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, izapide-egintza bat denez, ezin baita haren aurka errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoa.

Hala ere, lehenengo, bigarren eta hirugarren erabakiak, aurkeztutako alegazioei buruzkoak, irmoak dira eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Horien aurka, honako errekurtso hauek jarri ahal izango dira:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

*Tercero.* Desestimar las siguientes alegaciones por los motivos recogidos en los informes emitidos por los/las técnicos/as municipales:

— Presentada por J.M.E. el 23 de septiembre de 2025 (n.º de entrada 12488).

— Presentada por E.L.G. el 26 de septiembre de 2025 (n.º de entrada 12736).

— Presentada por E.L.G. el 29 de septiembre de 2025 (n.º de entrada 12746).

— Presentada por E.L.G. el 29 de septiembre de 2025 (n.º de entrada 12747).

*Cuarto.* Proteger el edificio de Santa Klara 3 y, en consecuencia, añadir a la modificación puntual del catálogo iniciada para incluir en el Catálogo Municipal de Patrimonio del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa los edificios de tipología chalet, residenciales colectivos como los edificios institucionales del ámbito urbano, añadiendo la ficha correspondiente (número de ficha 39).

*Quinto.* Entendiendo que lo acordado en el punto anterior constituye una modificación sustancial, al amparo de lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y únicamente en relación al punto anterior, relativo al acuerdo de protección e inclusión en el catálogo del edificio n.º 3 de Santa Klara, abrir un periodo de información pública y audiencia a los/as interesados/as por un plazo de treinta días, para que los/las interesados/as puedan presentar las reclamaciones y sugerencias que estimen oportunas.

Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento. Y, asimismo, publicar en la página web del Ayuntamiento de Tolosa el estudio patrimonial presentado por Zetabi Arkitektura Bulegoa, S.L.P. ante el Ayuntamiento de Tolosa el 14 de abril de 2026 (n.º de entrada 2026/5262).

*Sexto.* Disponer la nueva audiencia e información pública señalada y, en caso de no haber alegaciones, se entenderá definitivamente aprobada la ampliación del Catálogo.

*Séptimo.* Notificar el presente acuerdo a los/las interesados/as que han presentado alegaciones durante el periodo de información pública, adjuntando el informe emitido por los/las técnicos/as municipales.

La presente Resolución no agota la vía administrativa por tratarse de un acto de trámite contra el que no cabe recurso alguno, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, los acuerdos primero, segundo y tercero, relativos a las alegaciones presentadas, son firmes y ponen fin a la vía administrativa. Contra las mismas podrán interponerse los siguientes recursos:

Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier mo-


EK\CV GAO-I-2026-03159

aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Tolosa, 2026ko maiatzaren 11.—Cristina Pelaez Errazquin, zinegotzi delegatua. (3159)

mento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Tolosa, a 11 de mayo de 2026.—La concejala delegada, Cristina Pelaez Errazquin. (3159)

EK\CV GAO-I-2026-03159